

SANTA TERESA IKASTETXEA eta M.U.R.S.D-EN

ARTEKO SENIDETZE AGIRIA

Donostiako Santa Teresa Ikastetxeak (Manuel Lardizabal pasealekua, 25. 20018 Donostia GIPUZKOA, ESPAINIA) eta M.U.R.S.D(Mendon-Upton Regional School District, MASSACHUSETTS, U.SA, 150 North Ave. Mendon, MA 01756) eskola-senidetze akordioa gauzatzea adosten dute bi ikastetxeen arteko adiskidetze eta lankidetzak harremanak garatu, elkar aditu eta bi herrialdeetako kultura elkar trukatzeko helburuarekin.

SENIDETZE PROGRAMAREN HELBURUAK

- Bi hezkuntza komunitateen arteko harremanak sendotu eta elkar aditzea indartu.
- Bi herrialdeetako kulturen ezagutza eta errespetua handiagotu.
- Massachusetts-en gaztelaniaren irakaskuntza eta Donostian ingelesaren irakaskuntza indartu, bi herrialdeetan hizkuntzen irakaskuntza mantenduz eta sustatuz.
- Komunikazioaren bitartez adiskidetasuna sortu.
- Ikastetxe barnean nazioarteko ikuspegi bat zabaldu.
- Ikasleak osorik konprometitutako herritarrak izan daitezen eraldatu, aniztasunarekin ohituak eta ikuspuntu eta sinesmen ezberdinekin berea ez den edozein kulturatan erraz moldatzeko ahalmena izan dezaten.

SENIDETZE PROGRAMAREN JARDUERAK


- Hizkuntzen irakaskuntzan metodologia ezberdinen, baliabide eta material pedagogikoen elkartrukea.

- Bi ikastetxeek ikasleen eta irakasleen arteko elkartrukea mantentzeko ahalegina egingo dute, senidetu diren ikastetxean bertan ikasketa, lana eta bizitza ahalbideratzeko.
- Berdinak dituzten formazio eta komunikaziorako jarduera hezigarriak garatu, ingelesa, gaztelania, historia eta geografia bezalako ikasgaietan IKT teknologia berrien bitartez hobetu ahal izateko.
- Ingeles zein gaztelaniako idazmena hobetzeko helburuarekin, gutun bidezko lagun kluba sortu (PENPAL).
- Ikasleek aurkezpenak bidali edo azaltzeko garaian, modu errazago batean egin ditzaten, Teknologia berriak erabili (Skype, Flipgrid). Modu honetan, senidetu den herrialdeko ikasleekin izango dituzten komunikazioetarako eta eztabaidetarako euskarria izango da.
- Urtean behin bi herrialdeetako ikasle eta irakasleen arteko elkartrukea sustatu, ideiak eta esperientziak elkar banatu eta aldi berean, bakoitza bere hizkuntzan praktika erraztu eta hobetu ahal izateko.

Eta horrela ager dadin, senidetze akordioa sinatzen dugu.

Mendon-Upton Regional School District eta Santa Teresa ikastetxeak akordio hau urtero berrikusteko konpromisoa hartzen dute aurrerantzean akordio honen ildo berriak zehazteko.

Socorro Galarregui



Santa Teresa Ikastetxeko Zuzendaria
Helbidea: Manuel Lardizabal, 25.
20018 Donostia-San Sebastian
Tel. 943 211 764
secretaria@donostia.teresiareskola.com

Joseph P. Maruszczak Ed.D



M.U.R.S.D ikastetxeko Zuzendaria
Helbidea: 150 North Ave.
Mendon, MA 01756
Tel. +1-508-634-1585
jmaruszczak@mursd.org